

Haur euskaldunen hasierako hizkuntzaren zenbait berezitasun

ANDONI BARREÑA*

1. LANAREN HELBURUAK

Lan honen helburua haur euskaldunen hasierako hizkuntzaren deskribapena aurkeztea da, haurrek hitz biko zein gehiagoko esaldiak egiten hasten direnetik. Haurren hizkuntza-jabekuntzaren hasieran gramatika-ezaugarriarik eta sintaxi-araurik gabeko aro goiztiarra aurkitzea itxaroten dugu.

Gure hipotesi hau, gramatika-ezaugarriarik eta sintaxi-araurik gabeko aro goiztiarraren izatea, alegia, beste hainbat hizkuntzatan aurkitu dutenaren ildotik abiatzen da, horretaz ihardun baitute, adibidez, Bickerton-ek (1990) eta Ouhalla-k (1992), garapen orokorrak proposatzerakoan, eta Meisel-ek (1992), haur frantses-aleman elebidunen hizkuntzen jabekuntza deskribatzean.

Beste ikerlari batzuek ere, gramatika-arloko ezaugarriaren baten jabekuntza deskribatzean, berau une jakin batera arte ez dela gertatzen ikusi dute, esaterako, Radford-ek (1986)¹ eta Aldridge-k (1986)² ingeleraren jabekuntzaren garapenean, eta Platzack-ek (1989)³ suedierarenean.

Aro goiztiar honetan, gure eritziz, haurrek, besteak beste, hatsarre pragmatiko-semantikoez baliatu beharko dute hitz-elkarketak burutzeko. Ondo-

* Salamancako Unibertsitatea.

1. Radford-ek, haur ingelesaren hasierako hizkuntza aztertutik, INFL eta KONP funtzio-kategoriarik gabeko aroa dakusa.

2. Ikerlari honek haur ingelesaren INFL kategoriaren jabekuntzaz dihardu, eta 26 hilabete izan arte ez dela gertatzen dio.

3. Platzack-ek haurren ekoizpen goiztiarrak funtzio-kategoriarik gabekoak direla uste du. Halere, bere ustez, ekoizpen goiztiar hauek, nolabait, aditz-sintagmak lirateke, eta beraz gramatika-ezaugarriez eraikiak.

ren, Bickerton-ek (1990) dioenez, 2;00 adinaren inguruan, garunaren heltze neurologikoak Gramatika Unibertsala⁴ erabiltzea eskainiko die, eta hurrek gramatika-hatsarreez baliaturik eratuko dituzte hitz-elkarketak.

2. KORPUSA ETA METODOLOGIA

Haur euskaldunen hasierako hizkuntzaren nolakotasuna zein gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-araurik gabeko aro goiztiarraren izatea deskribatzeko hiru haurren hasierako euskararen jabekuntzaren bilakabidea aztertzeari ekingo diogu.

1. TAULA AZTERTURIKO BIDEOGRABAKETA-ZERRENDA: HIRU HAURREN ADINAK ETA EBBL-NEURRIAK

Adina	EBBL-neurria - maila - esaldirik luzeena ⁵		
	Oitz:	Mikel:	Peru:
1;05	1,12 - I - 2	-	-
1;06	1,14 - I - 3	-	-
1;07	1,23 - I - 3	1,08 - I - 2 1,10 - I - 2	-
1;08	1,41 - I - 4	-	-
1;09	-	1,35 - I - 4 1,44 - I - 5	-
1;10	1,38 - I - 4	1,71 - I - 5	-
1;11	1,75 - I - 5	1,96 - II - 6	1,12 - I - 2 1,24 - I - 2 1,21 - I - 3
2;00	1,77 - II - 7 1,93 - II - 4	2,43 - III - 6 2,13 - II - 7	-
2;01	1,94 - II - 8	1,97 - II - 6	1,26 - I - 3
2;02	2,28 - III - 6	2,41 - III - 10	1,56 - I - 3
2;03	2,36 - III - 7	2,76 - IV - 9	1,36 - I - 3
2;04	2,45 - III - 8 3,34 - IV - 10	3,38 - IV - 10 3,95 - V - 9	2,10 - II - 5
2;05	3,23 - IV - 10	3,17 - IV - 9	1,83 - II - 5
2;06	3,79 - V - 11	2,99 - IV - 11	-
2;07	3,40 - IV - 17	2,96 - IV - 8	2,61 - III - 6 3,27 - IV - 7
2;08	4,12 - + - 17	3,41 - IV - 12	-
2;09	4,64 - + - 15	3,66 - V - 11	3,25 - IV - 8
2;10	4,14 - + - 15 4,35 - + - 15	4,24 - + - 12	3,57 - V - 10
2;11	3,89 - V - 19	3,41 - IV - 13	3,27 - IV - 8
3;00	4,21 - + - 15	4,40 - + - 18	2,98 - IV - 7

4. Ez da gure asmoa garapen neurologikoak bideraturik zer heltzen den eztabaidatzea, Gramatika Unibertsala bere osotasunean edo beraren atalkaren bat edo batzuk, hatsarreak edo funtzio-kategoriak esate baterako. Gramatika Unibertsal kontzeptua darabilgunean zentzu orokorrean da, beraz.

5. Une honetan hurrek ekoizten duten esaldirik luzeenak, hitzez gain, gramatika-ezaugarriak ere kontutan hartzen ditu.

Hiru haurretariko bat, Oitz izena duena, elebakarra da, eta beste biak, Mikel eta Peru izenekoak, gaztelania-euskara elebidunak dira jaiotzetik, hizkuntza biak entzun baitituzte hasiera-hasieratik. Euskara, bada, hiruron lehen hizkuntza da, elebidunena lehen hizkuntzetariko bat baino ez den arren.

Gasteizko Euskal Filologia Saileko H.E.G.E.H.J.⁶ izeneko ikerketa-taldek ak hiru haur hauen eta beste batzuren hizkuntza-jabekuntzaren bilakabidea jarraitu du, horretarako 1;06ko adina izan dutenetik 5;00ko adina izan duten arte hamabostero ordu-erdiko iraupeneko saioak bidegrabatu ditue-larik. Grabatzeaz gain, HEGEHJ taldea saio hauen transkribaketez ere ardu-ratu da, eta gu materiale transkribatu honetaz baliatuko gara ikerlan hone-tan.

Arakaturiko materialaren ezaugarriak 1. taulan adieraziko ditugu. Taula honetan bideo-saio transkribatueta haurraren adina adierazteaz gain, ebbl-a⁷ zein den ere erakutsiko dugu.

Hiru urtera arteko bideo-saio transkribatuen datuak adierazi baditugu ere, batez ere hasierakoak dira gehien arakatuko ditugunak. Kontutan izanik batzuetan hilabete berean haur baten transkribaketa bat baino gehiago izan dezakegula, adibideak ematean haurraren adin osoa adieraziko dugu: urteak, hileak, egunak.

Bestalde, haurren ekoizpenetatik ulergarriak baino ez ditugu erabiliko, ulergaitzak baztertuko ditugularik. Ekoizpenen sailkapen hau, ulergarriak eta ulergaitzak, hain zuzen, HEGEHJ taldeak gauzatu du transkribaketak egitean; ez da, beraz, gure erizpidea izango. Baina ekoizpen ulergarrien arteko mintzaide helduen hizketaren errepika hutsak direnak ere ez ditugu kon-tutan izango, gure helburua haurrek sortzeko duten ahalmena deskribatzea eta ikertzea baita, eta ez errepikatzekeo duten gaitasuna.

Guzti hauez gain, gogoan izan behar dugu haurren ekoizpenak agindue-tan, galderetan eta esaldi deklaratzailreetan ikus ditzakegula sailkatu-rik.

3. AZTERTURIKO GRAMATIKA-EZAUGARRIAK

Gure helburua gramatika-ezaugarrien eta sintaxi-araue-ri erabilera azter-tzea denez, ondokoak aztertze-ari ekingo diogu:

- Izen-sintagmaren determinazioa. Noiz eta nola hasten diren haurrak izen-sintagmatzat jo ditzakegun multzoak mugatzen.

6. Haur Euskara Gaztelania Elebidunen Hizkuntza Jabekuntza. Talde honek ikerke-tan murgildurik dihardu 1988 urtetik Itziar Idiazabal irakaslearen gidaritzapean.

7. Esaldien Bataz Besteko Luzera. Hizkuntza-heldutasuna neurtzeko era hau Brown (1976) ikerlariak asmatu zuen haurren hizkuntza-maila mugatzeko helburuagaz, eta euska-rarentzat Idiazabalek (1991a) egokitu du. Ebbl-a egiterakoan une horretan haurrak duen esaldien bataz besteko luzera zehatza mugatzeaz gain Brown-ek neurri honen arabera finka-tu zituen bost hizkuntza-maila ezberdinak ere adierazten dira.

- Izen-sintagmaren multzoko osagai ezberdinen erabilera eta hurrenkera: adjektiboak, izenlagunak (NOREN, NONGO), ...

- Izen-sintagmek har ditzaketen gramatika-kasu-markak (ergatiboa, absolutiboa eta datiboa).

- Gainerantzeko kasu-marken erabilera.

- Aditz-multzoaren inguruan aditzek erakusten duten aspektu-marken ekoizpena.

- Adizki trinkoek eta laguntzaileek adierazten duten pertsona-komunztadura zein denbora eta modua.

- Galdera-perpausen hurrenkera.

Hau guztiau, zilegi denez, hasierako ekoizpenetara mugatu beharko dugu, ohar bi izan behar baititugu kontutan. Bata daukagun berezko muga, hots artikuluaeren luzera. Bestea ikerlanaren helburu bera: hasierako gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-araurik gabeko aro goiztiarra ezagutzea. Ez da gure ikerlan honen asmoa, beraz, gramatika-ezaugarrien agerrera edo erabilera zehatz-zehatza egitea. Halere, azkenean bilduko ditugun proposamenetan zerbait esango dugu honi buruz.

4. HAURREN HASIERAKO HIZKUNTZAREN DESKRIAPENA

Atal honetan haurren hasierako hizkuntzaren deskribapen hutsa baino ez dugu egingo. Horretarako gramatika-ezaugarri ezberdinen arabera aurkeztuko dugu azterketa. Azpi-atal bakoitzean haurren lehenetariko ekoizpenak baino ez ditugu erakutsiko. Hortaz, gramatika-ezaugarri eta sintaxi-arau ezberdinen erabilera noiz hasten den ikusi ahal izango dugu.

4.1. Izen-sintagmaren determinazioa

Azpi-atal honetan izentzat eta adjektibotzat jo ditzakegun lexiko-kategorietako ekoizpenak arakatuko ditugu.

Alde batetik, helduen gramatika-arauak jarraituz, behinik behin, inolako determinaziorik behar ez duten izen bereziak, pertsona-izenordainak eta beste zenbait izenordain ditugu. Bestetik, nini-hizkuntzako zenbait hitz berezi. Azkenik, izen eta adjektibo arruntak deituko ditugunak.

Adibideak ematerakoan haurraren esaldi osoa adieraziko dugunez, kontutan izan beharko dugu balitekeela bertan izen edo adjektiboaz gain beste osagaien bat ere agertzea. Beste barik, hona hemen lehenetariko ekoizpenak hurrez haur:

(1) O., 1;05;19: *a(rg)ia*; *a(rg)ia (b)apez*; *koko*⁸

O., 1;06;22: *koko*; *amon koko!*; *popota apu(r)tu*; *hau*

8. Adibideak irakurtzean ondoko oharrak izan behar ditugu kontutan: adibide ezberdinak puntu eta komek bereziko dituztela; parentesi arteko fonemak haurrak ekoitzi ez dituenak direla; eta azkenik, Mikel eta Oitz hurrek ekialdeko bizkaiera ikasten dihardutela, sarritan estandarren eragina ere igar dezakegarik.

O., 1;07;20: han t(r)ena; hemen a(r)gia; hori txotxo; pete, ama; ama, ten; hori; Ju(r)gi atara; emon hori!

O., 1;08;29: hori t(r)ena; hori kua; emon pete!; hor mu; hemen pupu; hemen ni

O., 1;10;12: oihala ez; atea; niria emon!; ikusi hareal; zu ez!

O., 1;11;05: Isidoro, ama; emon bat!

O., 2;00;05: azal bat; azala izan da; beste artazia; o(ra)in bestia; txaloak holan ez!

O., 2;00;26: Teo(re)n laguna; ez da(g)u zezena;

O., 2;01;19: beste panpina

O., 2;02;00: hori ume txikia; hori ha(r)tz luzia; ume txikiak bakari ez!; izar haundia; niri katu hau bigira;

(2) M., 1;07;14: petea (pastela)⁹

M., 1;07;27: a(b)ioie¹⁰; behie; hau?

M., 1;09;04: u(r)e; be(s)tie; palo uretara

M., 2;00;00: hemendi(k) tune(l); t(r)en nun da(g)u?

M., 2;00;22: amatxo bi; be(s)te ba(t)

(3) P., 1;11;00: Uri; pape(r)a; h(a)ndia; hau

P., 1;11;10: Pe(r)u; hau; hori; hau pipi; ni(re)a

P., 1;11;29: gua (usoa); handia; hau mamua; ni punba

P., 2;01;03: tena; apula; aful; hau pupil; tena ez; lua (grua) ez; hau Pi(r)u; ni (a)pu(r)tu

P., 2;02;14: etxea; hau Itzi; g(r)ua (g)a(r)ajea

P., 2;03;12: eta hau, beste hau?; beste sulula hemen

P., 2;04;15: tutu handia hemen; dena dena apu(r)tu

P., 2;05;26: Pe(r)u otxi (erosi) kotxen bat; kotxen bat; tutun bat hori; tutu elea (berdea); baloion bat; kaketak

Haurren ekoizpenetan zehar argi dakusagu hasiera-hasieratik izentzat jo dezakegun materiale lexikoa *-a* markaz dagoela mugaturik. Izen bereziak, pertsona-izenordainak eta beste izenordainak, helduen hizkuntzan gertatzen den lege ez dute marka hori. Nini-hizkuntzako hitzak, ordea, nagusiki *-a* marka barik ikusten ditugun arren, banaka batzuk marka horregaz ere ikus ditzakegu. Baina hitz arruntek gertatzen den beste fenomeno bat azpimarratu gura dugu: batzuetan, zenbait hitzekaz, mailegatuekz batez ere, haurrek ez dute delako *-a* marka ekoizten. Hona hemen adibideok:

(4) ama, t(r)en (O. 1;07;20); palo uretara (M. 1;09;22); hemendi(k) tune(l) (M. 2;00;00); aful (P. 2;01;03); hau pupil (gurpil) (P. 2;01;03).

9. Batzuetan haurrak ekoizten duen hitzaren esangura parentesi artean emango dugu, gure ustez ulergaitza denean.

10. Lehenago ere esan dugunez, Oitz eta Mikel haurrek ekialdeko bizkaiera ikasten dihardute, eta azpieuskalki honetan *-a* marka aldatu egiten da beste bokaleen eraginez *-e* bihurtuz.

Azpimarragarria da guretzat *-a* markaz gain hasieran ez darabiltela beste mugatzailerik. Beste mugatzaileen erabilera (*bat*, *hau*), edo izenak eta adjektiboak osaturiko multzoetan adjektiboa baino ez mugatzea, beranduago ikus ditzakegun jokabideak dira.

Badirudi *-a* marka lexikaldurik ikasten dutela haurrek, hitzari erantsirik, hitzaren osagaia bailitzan. Horrela, ikasten duten determinazioaren arloko lehen gramatika-ezaugarriak *-a* marka egoki erantztea edo beste mugatzaileak erabiltzea lirateke.

Haurrek hasierako *-a* marka lexikaldurik ikasten dutela esan dugu. Horregaz zera esan gura dugu, beraren erabilera ez dietela zor gramatika-ezaugarriren bati, lexikoaren ikasketari baino. Badugu hipotesi honen alde frogabat. Lehenago zera ikusi dugu, sarritan hainbat hitz, batez ere mailegatuak, *-a* marka barik ekoizten dituztela, helduen hizkuntzan arauaren aurka litzatekeen jokabidea gauzatuz. Baina gure ustez, haurrek jokabide hau helduengandik ikasi dute, euren mintzaide helduek ere horrela erabiltzen dutelako materiale lexiko hori, hots, *-a* markarik gabe. Erdararen eragina euskaldungoan eta haur hauengan zuzenean kontutan izan behar dugu. Ikus ditzagun adibide argigarri batzuk. Lehenengo bietan Mikel haurra ari da mintzaide helduagaz, eta bertan hitz mailegatu irentsigabeak *-a* marka barik ekoizteko mintzaide helduaren jokabidea haurrak berak ere jarraitzen duela ikus dezakegu; hirugarrenean, Peru haurraren jokabidea mintzaide helduak berak aldarazten du:

(5) *Mintzaidea: Bi falta di(r)e? (M. 1;09;04)*

Mikel: Bettie(bestea).

Mintzaidea: Zer?

Mikelek usin egiten du.

Mintzaidea: Jesus!

Mikel: Mocos.

Mintzaidea: Mocos? Ia painuelue nun da(g)oen? Itxoin! Ointxe ekarriko dot, amantalien itxi dogu ta.

(6) *Mintzaidea: Be(g)itu! Zer da hau? Sague? (M. 1;09;22)*

Mikel: Sabue.

Mintzaidea: Sague.

Mikel: Um!

Mintzaidea: Be(g)itu! Karakol

Mikel: Bai!

Mikel: ako?

Mintzaidea: Bai.

(7) *Peru: Ez. (P. 2;01;03)*

Mintzaidea: Ez?

Peru: Apula (azula).

Mintzaidea: Hori zer da?

Peru: Opula.

Mintzaidea: Fula?

Peru: *Hau pula. Fula.*
 Mintzaidea: *Nik zer den hori ez dut ulertzen.*
 Peru: *Fula.*
 Mintzaidea: *Urdina?*
 Peru: *Ofula.*
 Mintzaidea: *Fula? Galdetuko diogu aitari aber zer dan fula. Nik ez dakit zer dan fula. Eta hau? (jostailu bat erakusten diolarik).*
 Peru: *Ulia (= horia ala gorria?).*
 Mintzaidea: *Gorria?*
 Peru: *Hau fula.*
 Mintzaidea: *Azul?*
 Peru: *Aful.*
 Mintzaidea: *A! Urdina da hori.*
 Peru: *Ful.*
 Mintzaidea: *Azul!.*
 Peru: *Aful.*
Eta apur bat geroago begiratzuz, honelaxe segitzen dute:
 Peru: *Hau hau fula.*
 Mintzaidea: *Hori urdina da, bai. Azul.*
 Peru: *Ful.*
 Mintzaidea: *Urdina da hori, bai. Azula.*

Hauetz gain, Oitz haurrak tren hitza *-a* marka barik ekoizten duen bideo-grabaketan zehar bere aitita gatzelaniaduna ere ikus dezakegu bertan haurragaz tren batez olgatzten.

Guzti horregatik, gure ustea zera da: haurrek hiztun helduengandik jasotzen dutela hainbat hitz *-a* marka barik erabiltzeko jokabidea.

Datu guzti hauek *-a* markaren erabilera goiztiar hau lexikaldurik gauzatzen dutela pentsatzera bultzatzen gaituzte.

Determinazioaren erabilera, beraz, beranduago ikus dezakegu, haurrek beste mugatzaileak gauzatzean, izenak eta adjektiboak osaturiko multzoetan izena mugaturik gabe ekoiztean edo *beste* aurremugatzailea erabiltzean. Orduan pluralak ere erabiltzen has daitezke. Hona hemen determinazio-ezaugarriaz ekoiztiriko lehenetariko adibideak:

(8) *azal bat; beste artazia; txaloak holan ez! (O. 2;00;05); beste ba(t) (M. 2;00;22); eta hau, beste hau?; beste sulula(sudurra) hemen (P. 2;03;12).*

Guzti honen berri Idiazabalen (1991b:178) ikerlanean ere ikus dezakegu:

Biengan¹¹ agertzen da beranduago bat determinatzaile hitza *-a* atzizkia baino.

Idiazabalek adierazten duenez *bat* determinatzailea 2;04ko eta 2;00ko adinez ikus dezakegu Peru eta Oitz haurrengan, eta erabilera honek *-a* markak ez bezalako gramatika-ezaugarriaren erabilera bermatzen duela dio.

11. Ikerlan honetan Idiazabal Oitz eta Peru haurren hizkuntzaz ari da.

Jakina da, bestalde, euskarazko *-a* artikuluaeren eta inguruko hizkuntza erromanikoen artikulua determinatuen arteko ezberdintasuna¹².

4.2. Izen-sintagmaren osagaiak eta hurrenkera

Azpi-atal honetan alde batera utziko ditugu osagai bakarreko izen-sintagmak eta osagai anitzekoak baino ez ditugu arakatuko. Hona hemen hurrek ekoizten dituzten lehenetarikoak¹³:

- (9) O., 1;08;29: *Amane Però*¹⁴; *Anoni tita*¹⁵
 O., 1;11;05: *Mikel popota*¹⁶; *ama, niria popota*
 O., 2;00;05: *oin zure ulea; zure iloari*¹⁷; *txotxo txarra*
 O., 2;00;26: *Teoren laguna; nire etxian; Teoren anaia; bere aita; tipa-azala*¹⁸
 O., 2;01;19: *hau amamaren erregalua; zu zure botekin; nik pentsa(t)u beste ipuina dana*
 O., 2;02;00: *hori ume txikia; izar haundia; ume txikiak bakarrik ez!*
 O., 2;03;09: *halako pinturak; Asabelen etxean; ba halako makina bat; barraketako pailasok ko trenan*

- (10) M., 1;09;22: *ataia potokie*¹⁹
 M., 2;00;00: *ni(r)e ten nun da(g)o?*
 M., 2;00;22: *amatxo bi; beste bat*
 M., 2;03;11: *deko(t) be(s)te ba(t) hemen; e(g)in dau(du) kotxe ba(t)*

- (11) P., 2;03;12: *eta hau, beste hau?*
 P., 2;04;15: *tutu handia hemen; dena dena apu(r)tu*
 P., 2;05;26: *kotxen bat; tutun bat hori; tutu elea (berdea); baloian bat;*
 P., 2;07;09: *polo bat; txotxe handia; paper bat hartu dut*

Hasiera baten osagai biko edo gehiagoko izen-sintagmek ez dute gramatika-ezaugarriarik edo ez dira agertzen aztertu ditugun hurren ekoizpenetan. Gramatika-ezaugarriak lehen izen-sintagmak adina aurrera doala ikus ditzaugu: Oitz haurrak 2;00;05eko adina duenean, Mikel haurrak 2;00;00ko adina duenean eta Peru haurrak 2;03;12ko adina duenean, alegia.

12. Horrela, adibidez, euskaldun bati, *table* euskaraz zelan esaten duen itaunduko balio-te, berak *mahai-a* ihardetsiko luke.

13. Argi gera bedi ez ditugula adibide guztiak erakusten, esanguratsuenetako batzuk baino.

14. Adibide honetan haurrak alabaren eta aitaren izena elkarren ondoan jartzean *ume-txoaren aita* multzoaren antzeko zerbait adierazi gura duela dirudi.

15. Oraingoan *Andoniren erlojua* esan nahi duela dirudi.

16. *Mikelen kotxea* da oraingo multzo honen esanahia.

17. Erakutsiko ditugun hainbat adibideetan izen-sintagmaren eskumatan deklinabide-atzizkiren bat ere ikus dezakegu.

18. Kontutan izan *tripa* hitzak *-a* marka izango balu, *tripie* itxaron beharko genukeela.

19. *Potokiaren gazta(ia)* adierazi gura duela dirudi.

Izenlagunak beti agertzen zaizkigu izenaren ezkerretara, eta adjektiboak eskumatara, ohikoa denez. Determinatzaileek ere arauak eskatzen duten egongunea betetzen dute, lantzean behin arazotxoren bat agertzen zaigun arren *-a* determinatzailea errepikatzen delako:

(12) *dena dena apu(r)tu* (P. 2;04;15:), *nik pentsa(t)u beste ipuina dana* (O. 2;01;19)²⁰.

Izen-sintagmaren barruko osagaien hurrenkera ere ohikoa dela esan dezakegu, behintzat gramatika-ezaugarriez eraikitakoetan. Agian ezin dugu gauza bera esan Oitz eta Mikel haurrek ekoizten dituzten hasierako osagai biko izen-sintagmen hurrenkerari buruz. Oitz haurrak ekoizten dituen hiru adibideetatik lehenean (*Amane Pero* hain zuzen) badirudi alderantzizko hurrenkera itxaron beharko genukeela, zeren Oitz haurra umetxoaz (*Amane*) ari baita, eta ez aitaz (*Pedro*), eta helduen hizkuntzan hori *aitaren alaba* litzateke. Antzeko gauza esan dezakegu Mikel haurrak ekoizten duen adibide bakarrean (*ataia potokie*, hain zuzen), zeren hurrenkera *potokiaren gazta* litzateke eta ez alderantzizkoa.

Guzti honexegatik, badirudi, haurrek adin batetik aurrera baino ez darabiltzela gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-arauak izen-sintagmak gauzatzekoan. Horrela deskribatu du Idiazabalek (1991b) Peru eta Oitz haurren izen-sintagmaren jabekuntza, eta bere datuetan ikus dezakegunez, Oitz haurrak 2;00ko eta Peru haurrak 2;03ko adina dutenean hasten dira helduen gramatiketan egokitzen jotzen diren osagai biko edo gehiagoko izen-sintagmak burutzen. Halere, une honetatik aurrera zailtasunak sarritan dituztela ikus dezakegu.

4.3. Gramatika-kasu-markak

Lehenago esan dugunez, azpi-atal honetan ergatibo-, absolutibo- eta datibo-kasuen markei buruz ihardungo dugu. Luzea litzateke, euskal gramatikaren berezitasuna ikusirik, absolutiboaren marka eta izen-sintagmarena nola berezi beharko liratekeen eztabaidatzea, eta jarraituko dugun erizpidea ondokoa izango da: absolutiboa subjektu zein osagarri zuzen moduan darabiltzen baiestea.

Hona hemen lehenetariko adibideak:

(13) O., 1;06;22: *aitita(k) apu(r)tu*
 O., 1;07;20: *Ju(r)gi apu(r)tu*
 O., 2;00;05: *nik; zuri; eba(g)i nik; pianoa gu(k) ezin jo; gu(k) eba(g)i*
 O., 2;00;26: *ni(k) argia ikutu; ez da(g)u zezena; zuk; nik*
 O., 2;01;19: *Asunek eka(rr)ita; tenak; guk ikusi*

(14) M., 1;09;04: *ta zuk?*
 M., 1;09;22: *be(s)te bat ta(r)tu (sartu)*

20. Ikerlan honetan ez da gure asmoa determinatzaileen jabekuntza osoa deskribatzea eta aztertzea, eta horregatik ez dugu arazo honetaz ihardungo.

M., 1;11;06: gurixe (gorria) da hau

M., 2;00;00: nik hau; zu(k) hau

M., 2;01;06: Ana(k) nahi (d)au; ni(k) hau (eg)in do(t); ni(r)i bai

(15) P., 2;01;03: ni(k) (a)putu

P., 2;04;15: Peru(k) ezin du

P., 2;05;26: Peru(k) otxi (erosi) kotxe bat; bota du Peruk; ez du nahi amak; da zezena

P., 2;07;09: gizona(r)i; nik kakikia hartuko dut

Datuok ikusirik gramatika-kasu-marken erabilera une batetik aurrera baino ez dutela gauzatzen esan dezakegu, arakatzen dihardugun bideograbeketako materialeak ikusirik behinik behin: Oitz haurrak 2;00;05eko adinaz, Mikel haurrak 1;09;04ko adinaz eta Peru haurrak 2;05;26ko adinaz. Lehenago ez dugu ikusi halako kasu-markarik.

Datuok, bestalde, zera ere adierazten digute: behin kasu-marka erabiltzen hasiez gero, balitekeela beti ez erabiltzea arauak horrela eskatzen duen arren. Erabilera-ezaren adibiderik argienak ergatiboa-markarik gabeko ekoizpenak dira.

Gure hipotesiari dagokionez, argi dago hasiera batetan ez dutela gramatika-kasu-markarik erabiltzen. Baieztapen hau bat dator Elosegik (1991) dioenarekin Peru haurraren korpusa aztertzean, 2;05;27ko adinera arte ez baitakusa ergatibo- eta absolutibo-kasuez eraikitako adibiderik.

4.4. Beste kasu-markak

Gramatika-kasuak eta genitiboak dagoeneko aztertu ditugunez, hona hemen beste kasu-markadun lehenengo adibideak:

(16) O., 1;07;20: ekolala; nirie

O., 1;08;29: hori niria; niria emon; ekolala; kortan; no(re)na?

O., 1;11;05: ez, kotxienea

O., 2;00;05: Jurgi(re)na ez!, ama; hori eskuan; ez, dantzan ez!; medikuena

O., 2;00;26: Arantzagaz; Idoiana; aitita Akardo(re)kin; t(r)atoran bai

O., 2;01;19: ni nire botekin; atxurraz han ko; Bilbora

(17) M., 1;11;06: hankian zapata; ez Durangora ez!

M., 2;00;00: hori horti(k) bota;

M., 2;00;22: haukue (horkoa); han beheien be(g)itu!

M., 2;01;06: hau ko(t)xien; Itsaso(re)na

M., 2;02;11: aitatxo(re)kin; amatxo(re)na; amatxogana; hori etxera

(18) P., 1;11;10: ni(re)a

P., 1;11;29: ni(re)a

P., 2;02;14: g(r)ua (ga(ra)jean

P., 2;04;15: Peru(re)na; hau atzean, hau; hau aita(re)na bezala

P., 2;05;26: holakoa; nilea(nirea)

Gure ustez, Oitz eta Peru hurrek hasieran darabilten *nirea* hitza ez dute ekoitzi kasu-marka hau emankor darabiltelako, baizik lexiko-arloko unitate bezala jabetu direlako hitz honetaz. Gauza bera esan dezakegu Oitz haurrak sarritan darabilen *no(re)na* galdetzaileari buruz. Kasu-markaren erabilera baieztatu ahal izateko emankorra izan behar da beronen erabilera, eta ez hitz bakarrera mugatu. Gainera hitz hauen berezitasuna ere kontutan hartu behar dugu.

Antzeko zerbait esan dezakegu Oitz haurrak hasieran darabiltzan *ekolala* eta *kortan* hitzei buruz. Hasteko, haur honek berba hauek oso esanahi bereziz darabiltza, biek baitute *kanpoan* zentzua. Lehenengoa bere anaia etxean ez dagoenean darabil, eta bigarrena zerbait edo norbait etxetik kanpora dagoenean. Gainera ez dira marka emankorrak.

Badirudi beraz, kasu-marken erabilera 1;11;05eko adinaz hasten duela Oitz haurrak (eta une honetan adibide bakar batek erakusten digun zalan-tzagaz), 1;11;06ko adinaz Mikel haurrak eta 2;02;14/2;04;15eko adinaz Peru haurrak²¹. Bat gatoz, beraz, Elosegigaz (1991) Peru haurraren kasu-sistimaren jabekuntza arakatzean, ikerlari honek ere 2;02;14ko adinera arte haur honek kasu-markarik ez darabilela eta une honetako ekoizpena duda-mudakoa dela baitio.

4.5. Aditzaren aspektu-markak

Azpi-atal honetan aditz-multzoko aditz nagusiek har ditzaketen aspektu-markez gain (-tu, -tzen, -ko²²), mendeko perpaus denboragebeetan aditzei erants diezaizkiekegun markak (-ta, -tzen, -tze²³) ere arakatuko ditugu. Hona hemen lehenengo adibideak:

- (19) O., 1;06;22: *popota apu(r)tu; amon koko!; apapa*
 O., 1;07;20: *ajgia apu(r)tu; hau bota; Ju(r)gi atara; emon hori!*
 O., 1;11;05: *o(ra)in dana ipini; ezin hartu; ezin ibili; ni igon*
 O., 2;00;05: *azala izan da; gu(k) hori eba(g)i; zapatak kenduta; konpon-*
duta
 O., 2;00;26: *han hartu; Teo ibili; buruhaundia ipini*
 O., 2;01;19: *argie izetu; hori itxi hor; ta ni susta(t)ute; Asunek eka(rr)ita;*
hori ebeitte (ebagita)
 O., 2;03;09: *holakue nun da(g)u, sartuten da; holan tolostu; zelan ipini?;*
ipuiue sartute; marraztuten; makila joten; hori nun ipintzeko?; ba aititari ma-
kila konpontzen

21. Peru haurraren bitarteko grabaketa transkribatu bakarrak (2;03;12koa hain zuzen) oso argitasun gutxi ematen digu, haurrak gogo gutxi baiterakusa hitz egiteko orduan, bere aho-ekoizpena oso urria delarik.

22. Horrela ezagutuko ditugu gure aditz-aspektuak, euskaldun gehienek uler dezaketen eran. Ez da gure helburua gramatikaren deskribapen zehatza egitea.

23. Gramatika deskriptiboetan aspektu-adierazle legez agertu ez arren, guk hemen aztertzea erabaki dugu, nolabait ekintza amaitua, egiten edo hasteke dagoela adierazten baitute.

O., 2;04;11: *ni(k) ez ikutuko oholak; nik ulia ebatu; ez da kausten; berak badaki zubia eitten; ba etxiek eiteko*

O., 2;04;24: *ezebez emongo; garajie eingo (d)otza(g)u(diogu)*

(20) M., 1;07;14: *akaba(t)u*

M., 1;07;27: *eto(rr)i; ke(n)du*

M., 1;09;04: *apu(r)tu; konta(t)u; hau (i)pintzen da*

M., 1;11;06: *hemen sartu; hau ez da aputu; hemen ez da ka(b)iten; hau ez da ka(b)it(z)en*

M., 2;00;00: *Ana eto(r)ri da; ez da apurtzen; hau ipiniko (dog)u*

M., 2;00;22: *ez da kausiko*

M., 2;02;11: *apurtute da(g)u; bestie da(g)u apurtute*

M., 2;03;11: *ze eiten na(g)u buztena*

M., 2;04;11: *kolasteko*

(21) P., 1;11;00: *kentu; ha(r)tu*

P., 2;01;03: *ni(k) (a)pu(r)tu*

P., 2;03;12: *apu(r)tuta*

P., 2;05;26: *jan dut; jausiko da; hemen eroriko da; ibiltzen doa; lolo (e)giteko*

P., 2;07;09: *aita, hau tapa(t)uko dut; nik kakikia hartuko dut; pintatxeko da kotxea*

P., 2;07;30: *hau ixten da; ta hemen jaten du Potxok*

Hasiera baten, adizki jokatugabeek, aditz-multzoko osagai bakarra izan zein ez, ez derakusate aspektu-marka kontrajarririk. *-tu* da marka bakarra, eta badirudi aditz-lexema hutsa dela.

Adizki jokatugabeek, euskara mintzatuan gertatzen den legez, aspektu-baliorik erakusten ez dutenean, hots, aditz-lexema hutsak direnean, aspektu burutua adierazten duen markaz agertzen zaizkigu. Eta holantxe erabiltzen dituzte haur hauen inguruko mintzaide helduek²⁴:

(22) *ekarri kotxe hori! (Oitz haurraren ama); hartu pintura hau! (Mikel haurraren ama)*

Aspektu-marka kontrajarren erabilera edo mendeko perpausetako menderagailuen erabilera ez dakusagu hasiera baten. Gogora dezagun fenomeno bi hauen erabileraren hasiera hurrez haur: 2;03;09koan eta 2;00;05ekoan Oitz haurraren; 2;00;00koan (1;09;04ko adinaz ekoizten duen adibide bakar eta dudakoaz gain) eta 2;02;11koan Mikel haurraren; 2;05;26koan eta 2;03;12koan Peru haurraren.

Beste kontu bat da zelan agertzen zaizkigun aspektu-markak: zein hurrenkeratan, zein motatako perpausetan, eta abar. Eta beste kontu bat da menderagailuen eta aspektu-marken arteko erabilera-harremanen arloa.

24. Gogoan izan dezagun haur hauek euskara mintzatua ikasten dihardutela.

Ezeizabarrenak (1994) Mikel eta Jurgi²⁵ haurren aditz-multzoaren araketa burutzean zera ikusi du: Jurgi haurrak lehenago darabiltzala menderagailuak aditz mugatuei erantsitako aspektu-markak baino, eta Mikel haurrak, guk esan dugun legez, aspektu-markak darabiltzala menderagailuak baino goizago. Bestalde, berak eta guk Mikel haurraren azterketari buruz emaniko datak beraiek dira. Guk geuk, azpimarragarri deritzogu lau haurretariko hiruk aspektu-markak menderagailuak baino lehenago erabiltzeari.

Aspektu burutuaren markak, hasiera baten, beraz, aditz-lexemaren balio hutsa duela dirudi. Hortaz, aldi horretan, beraren erabilera lexikoaren arlokoa dela baieztatzeko dezagutela uste dugu.

4.6. Aditzaren pertsona-, denbora- eta modu-markak

Azpi-atal honetan, arakatu gura dugun fenomenoaren konplexutasuna ikusirik, datuen erakusketa beste era baten antolatuko dugu. Pertsona(k), denbora eta modua adierazten dituzten adizki laguntzaile eta trinkoen agerrera urratsez urrats aurkeztuko dugu.

Lehen urrats baten, hurrek orainaldiko singularreko hirugarren pertsonari dagozkion adizki trinkoak baino ez darabiltzate (*egon* eta *jakin* aditzekoak, batez ere). Hona hemen zenbait adibide:

(23) *han da(g)o(z)* (M. 1;07;14); (*nik*) *no tati(dakit)* (M. 1;07;14); *e(z) da(g)o* (M. 1;07;27); (*nik*) *en (ez) daki(t)* (P. 1;11;29); *e(z) da(g)o* (P. 1;11;29)

Sasoi goiztiar honetan Oitz haurrak bidegrabaketetan zehar halako ekoizpenik gauzatu ez arren, bere gurasoek bildu duten egunerokoan halako formak ere aurki ditzakegu.

Adizki hauetan argi ikus dezakegu pertsona-komunztadurarik ez dutela adierazten, singularreko hirugarren pertsonari dagozkion adizki hauek pluraleko hirugarren pertsonarekin zein singularreko lehen pertsonarekin baitarabiltzate.

Meisel-ek (1994) jabekuntzaren garapenaren hasierako adizkiek pertsona-komunztadurarik adierazten dutenentz erabakitzeko baldintza batzuk aurkeztu ditu. Komunztadura-markak emankor erabiltzeaz gain gramatika-pertsona ezberdinei dagozkien markak egoki erabiltzea lirateke oinarritzkoenak. Euskaraz singularreko hirugarren gramatika-pertsonari dagozkion adizkiek ez dutela marka berezirik kontutan izanik, iragankorrak behinik behin, badirudi lehen edo bigarren gramatika-pertsonari dagozkien markak ikusi arte ezingo dugula komunztadura-ezaugarria baieztatu.

Bestalde, Meisel-en (1994) alemanaren jabekuntzaren garapeneko datuetan ikus dezakegun bezala, euskarazkoetan ere, singularreko hirugarren gramatika-pertsonari dagozkion adizkiak dira hurrek erabiltzen dituzten lehenak. Hasierako forma hauek, antza denez, hizkuntza bietako jabekuntza-garapenetan komunztaduragabeak dira. Hau guztiau argiago ikus

25. Jurgi haurra HEGEHJ taldeak bidegrabaturiko beste haur bat da.

dezagun adibide bat inguru eta guzti erakutsiko dugu. Adibideon Mikel haurra eta bere aita gaztelaniaduna ari dira:

(24) *Aita: A ver, dime tú si están corriendo las vacas. ¿Están corriendo?*

Mikel: Han.

Aita: ¿Dónde están?

Mikel: Han da(g)u.

Aita: ¡Ah! Están allí.

Mikel: Allí.

Badirudi, beraz, adizki trinko hauek aditz-lexema hutsak baino ez direla, eta horrela edozein gramatika-pertsonaz darabiltzatela hurrek.

Ezeizabarrena (1994) ere eritzi berekoa da eta hasierako adizki hauen erabilera-aldiari flexioaren azaleratzea deritzo. Bere ustez, flexioen azaleratzea hirugarren urratsa litzateke aditzen jabekuntzan, pseudoaditzen (guk nini-aditzak deitu ditugunak) eta lehen aditz lexikalen ostean. Halere, berak aurkeztzen dituen adibide-datei begiratuaz gero, badirudi hiru urrats hauek ez direla kronologikoki betetzen, une berean gertatzen baitira. Gure datuetan ere horrela ikusi ahal izan ditugu.

Bigarren urrats baten, orainaldiko singularreko hirugarren pertsonari dagozkion adizki trinko hauez gain, era bereko laguntzaileak ere agertzen zaizkigu. Hona hemen adibide batzu:

(25) *hau ez da (M. 1;09;04); ezin, jausi (eg)in da (M. 1;09;04); lau sei da(g)u(z) (M. 1;09;22); (nik) ez daki(t) (M. 1;09;22); hemen dator prolema (P. 2;04;15); Peru(k) ezin du (P. 2;04;15); joan da etxe(r)a (P. 2;04;15); bota du (P. 2;04;15); ez da(g)u hemen (O. 2;00;05); azala izan da (O. 2;00;05); bi da(g)u(z) (O. 2;00;05); argie izetu da (O. 2;01;19); hortxe egon da (O. 2;01;19); (nik) ez daki(t) (O. 2;01;19)*

Adibide batzuetan komunztadura-arloko desegokitasuna ikus dezakegu-nez, jokaera honek aurreko urratseko eritziari oraingoz eutsi behar diogula erakusten digu, hots, adizki hauek ez dutela pertsona-komunztadurarik adierazten. Halare, badirudi hurrek adizki laguntzaileak eta trinkoak berezten ikasi dutela, eta laguntzaileen artean iragangaitzak eta iragankorrak ere. Une honetan, hortaz, nolabaiteko gramatika-ezaugarri baten aurrean egongo ginateke.

Hirugarren urrats baten haurrak subjektuarekiko pertsona-komunztadura adierazten duten adizki laguntzaileak eta trinkoak egoki erabiltzen hasten dira. Une honetan gramatika-pertsona ezberdinei dagozkien adizki iragangaitzen zein iragankorren erabilera ikus dezakegu²⁶. Hona hemen zenbait adibide:

26. Gramatika-erabilera bermatzeko, gorago esan dugunez, gutxienez pertsona kontrajarri biri dagozkien adizkiak aurkitu behar ditugula euki behar dugu gogoan. Horrela, une honetan darabiltzaten adizki iragankorrak, hots gramatika-liburuetan osagarri zuzenarekiko komunztadura ere erakusten dutenak, guretzat, haurraren hizkuntzan, ez dute subjektuaz gain beste komunztadurarik erakusten, osagarri zuzena beti singularreko hirugarren pertsonari baino ez baitagokio.

(26) *ni na(i)z* (O. 2;03;09); *ba makila bat da* (O. 2;03;09); *hau izan da* (O. 2;03;09); *bai daki* (O. 2;03;09); *ez dakit* (O. 2;03;09); *badakizu zer?* (O. 2;04;11); *hau ez dekot ipinita* (O. 2;04;11), *ez da(g)uz zikinak* (O. 2;04;11); *ez do(t) ipini* (M. 1;10;12); *ez dau(du) gure* (M. 1;10;12); *holan (eg)in dau(du) mu* (M. 1;11;06); *holan ipiniko (dog)u, e?* (M. 2;00;00); *ez do(t) topa(t)u* (M. 2;00;00); *ni susta(t)u e(g)in na(i)z* (M. 2;01;06); *hau bota du Peruk* (P. 2;05;26); *ez du nahi amak* (P. 2;05;26); *jan dut* (P. 2;05;26)

Badirudi, bada, komunztaduraren arloan subjektuarekikoa dela erabiltzen hasten diren lehenak. Arlo honetan adizki iragangaitzak zein iragankorak ikus ditzakegu, azken hauek osagarri zuzenarekiko komunztadurarik erakusten ez dutelarik. Gramatika-pertsonei agerrera-hurrenkerari begiratu gero, badirudi singularreko lehen eta hirugarren pertsonei dagozkien formak direla erabiltzen dituzten lehenak, eta ondoren singularreko bigarren edo pluraleko lehen pertsonei dagozkienak.

Azpimarragarria da Mikel haur bizkaitarrak eraiki duen subjektuarekiko komunztadura-sistema berezia. Fenomenoa adizki laguntzaile iragankorretan ikus dezakegu:

- | | | |
|--------------------------------------|---|------------------------|
| (27) <i>singularreko 1. pertsona</i> | → | <i>do(t)</i> |
| <i>singularreko 3. pertsona</i> | → | <i>dau</i> |
| <i>pluraleko 1. pertsona</i> | → | <i>(d)o(g)u/(dog)u</i> |

Laugarren urrats baten zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura izango da erabiliko duten hurrengoa. Hau ere adizki iragangaitzetan zein iragankorretan²⁷ agertzen zaigu. Hona hemen lehenetariko adibideak:

(28) *hala!*, *kausi jate(zait)* (O. 2;04;24); *garajie ingo dotza(g)u(diogu)* (O. 2;04;24); *ze bestela kenduko (d)ozku(digu)* (O. 2;04;24); *nun ipiniko (d)otzet(diot)?* (M. 2;04;00); *baina hau, baina hori eruengo (d)otzut(dizut)* (M. 2;05;10)

Ezeizabarrenaren (1994) ustez osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura, behintzat singularreko eta pluraleko hirugarren pertsonei dagozkiena, zehar-osagarriarekikoa baino lehenago agertzen da. Halere, baieztapen honen ondoren bi ohar eman behar ditugu. Alde batetik, bere datuak eta gureak ez datozela guztiz bat, aztertu ditugun haurretariko bat baino ez da berdina eta. Bestetik, gure ustez, singularreko eta pluraleko hirugarren gramatika-pertsonei baino ez balituzkete bereziko ere, ez luketela osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadurarik erakutsiko, zeren gramatika-pertsona bera baita, gramatika-numeroa ezberdina den arren. Ezeizabarrenak berak ere badakusa arazo hau eta ondorioz zalantzan jartzen du osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztaduraren erabilera une honetan.

Hurrengo unetan denbora ezberdinak (orainaldia/lehenaldia), osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura ezberdinak (singularreko/pluraleko hi-

27. Lehenago esan dugunez, adizki hauek osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadurarik oraingoz erakusten ez dutelakoan gaude. Behintzat gramatika-pertsona-marka kontrajarri bi ez darabiltzate.

rugarrenak baino ez) eta modu ezberdinak (indikatihoa/subjuntiboa edo agintera) erabiliko dituzte.

Hau guztiau horrela erakusten dugu 2. taulan laburbildurik (aditz-lexemen erabileraren hasiera; trinkoak eta laguntzaileak eta laguntzaile artean iragangaitzak eta iragankorrak berezten duten aroaren hasiera; subjektuarekiko pertsona-komunztaduraren erabileraren hasiera; zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztaduraren erabileraren hasiera; osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztaduraren erabileraren hasiera -singularreko/pluraleko hirugarrenak baino ez-; aditz-denbora ezberdinen erabileraren hasiera; aditz-modu ezberdinen erabileraren hasiera):

2. TAULA
ADITZAREN PERTSONA-, DENBORA- ETA MODU-MARKEN ERABILERAREN
HASIERAREN DATAKETA

	lexemak	tri/lag.	subjek.	zehar-o.	o. zuz.	denbora	modua
Oitz	1;05;19	2;00;05	2;03;09	2;04;24	2;08;13	2;07;05	2;10;12
Mikel	1;07;14	1;09;04	1;10;12	2;04;01	3;01;04	2;09;04	2;11;16
Peru	1;11;00	2;04;15	2;05;26	3;00;17	3;05;09	2;10;11	-

4.7. Galderen hurrenkera

Galdera-perpausen hurrenkera aztertzerakoan NZ-galderak²⁸ deiturikoe-tara mugatuko da gure araketa hau.

Hasiera baten haurrek osagai biko NZ-galderak ekoizten dituzte, eta NZ-hitza edo galdetzailea beti jartzen dute eskuman, esaldiak aditzik ez duelarik. Hona hemen halako adibide batzuk:

(29) *kotxie nun?*; *bestie nun nun?* (M. 1;09;04); *hori no(re)na?* (O. 1;08;29); *ni nun?*; *popota no(re)na?* (O. 1;11;05)

Peru haurraren ekoizpenean, aitzitik, ez dugu inolako NZ-galderarik ikusi aldi honetan.

Jarraian, aditzak ere osatzen duenean NZ-esaldia, osagaien hurrenkera honelakoxea da: *osagairen bat (edo ezer ez) - NZ-hitza - aditza (trinkoa edo jokatugabe hutsa)*. Hona hemen adibideak:

(30) *kotxie nun da(g)u?*; *nun da(g)u?*; *bestie zer da?* (M. 1;10;12); *nundi(k) zabaldu?*; *hori zer da?*; *Tibis zer da?* (O. 2;00;26); *non dago?* (P. 2;03;12); *nor da?* (P. 2;04;15)

Halere, baliteke une honetan aurreko multzokoak bezalakoak ere ekoiztea.

Geroxeago aditz-multzoaren ostean osagaiak ere ikus ditzakegu. Adibidez:

(31) *nun ipiniko (dog)u kotxie?* (M. 2;04;00); *zeaitik kendu dau(du) nire kamioie?* (M. 2;04;11); *nok apurtu dau(du) holakue?* (O. 2;04;24); *zenbat balio du [xx]?* (P. 2;07;30)

28. NZ-galderak zati-galderak dira eta NZ-hitza galdetzaileak. Galdetzaileak beti joan behar du aditzaren ezkerretara, *zergatik* galdetzaileak izan ezik.

Hau guztiau ikusirik zera esan dezakegu: hasiera baten hurrek, Mikel eta Oitz hurrek behinik behin, beti hurrenkera beraz gauzatzen dituztela aditzik gabeko NZ-esaldiak, hots *osagaia* - *NZ-hitza* hurrenkeraz. Halere ez dago bat ere argi, hurrenkera honek sintaxi-arauren bat betetzen duen, helduen hizkuntzan halako NZ-galderetan NZ-hitza ezkerretan zein eskumatan ager daiteke eta. Bigarren urrats baten NZ-hitza beti aditzaren ezkerretara agertzean, badirudi helduen hizkuntzan gauzatzen dugun hurrenkera bera gordetzen dutela NZ-hitza eta aditzak. Hirugarren urratsean aurkezturiko NZ-esaldiak helduen arauz taiuturik eraiki dituztela esan dezakegu.

Gure eritziaren arabera, bada, bigarren urratsera arte ezin dugu sintaxi-arauez hitzegin. Baieztapen honek, aitzitik, ez du esan gura une honetatik aurrera NZ-galderak helduen arauz egiten dituztela uste dugunik. Gure eritziz, une honetan aditz-sintagma deituriko gramatika-kategoriaren erabilerak ahalbideratzen dien hurrenkera baino ez darabilte, eta inola ere ez KONP funtzio-kategoriaren²⁹ erabilerak hiltun helduei ahalbideratzen diguna. KONP funtzio-kategoriaren erabileraren hasiera, geroxeago, hirugarren urratseko NZ-galderak ekoiztean, ikus dezakegu.

5. PROPOSAMEN-BILKETA

Datu guzti hauek aurkeztu eta gero, argi dago, gure ustez bederen, hurrek gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-araurik gabeko aro goiztiar bat betetzen dutela euskararen garapenaren hasieran, eta ondoren, agian apurka-apurka edo urratsez urrats, gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-arauek erabiltzen hasten direla.

Atal honetan, lehenengo, arakatu ditugun gramatika-ezaugarri eta sintaxi-arauen erabilera mugatuko dugu. Jarraian, gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-araurik gabeko aro goiztiarraren izaeraz ihardungo dugu. Azkenik, zenbait proposamen biltzeari ekingo diogu.

5.1. Gramatika-ezaugarri eta sintaxi-arauen erabilera

Aro goiztiar honen iraupenaz ihardungo dugu lehenengo. Halere gogoratu behar dugu aro honen hasiera ezin dugula zihurtasunez adierazi, zeren aztertzen dugun korpusa bideo-grabaketak egiten hasi zirenetik mugaturik dago eta. Hasiera-data, beraz, guk aztertu dugun korpus mugatuaren data baino ezin daiteke izan.

Hasteko, gramatika-ezaugarri eta sintaxi-arauen erabileraren hasiera datatzeko asmoaz, laugarren atalean arakatu ditugun fenomenoak taula baten biltzen ahaleginduko gara (ikus 3. taula).

29. KONP funtzio-kategoria euskaraz, besteak beste, mendeko denboradun perpausak, NZ-galderak eta galdegaiek gauzatzea arautzen eta ahalbideratzen duen ezaugarria da. Ikus Barreña (1993).

3. TAULA
AZTERTURIKO GRAMATIKA-EZAUGARRIEN ETA SINTAXI-ARAUEN
ERABILERAREN HASIERA-DATAK

	Oitz:	Mikel:	Peru:
Izen-sintagmaren determinazioa:	2;00;05	2;00;22	2;03;12
IS-en osagaien hurrenkera:	2;00;05	2;00;00	2;03;12
Gramatika-kasu-markak:	2;00;05	1;11;06	2;05;26
Beste kasu-markak:	1;11;05/2;00;05	1;11;06	2;02;14/2;04;15
Aditz-aspektu-markak:	2;03;09	2;00;00	2;05;26
Aditzei erantsi menderagail ³⁰ :	2;00;05	2;02;11	2;03;12
Flexio-aditzen erabilera ez ³¹ :	2;00;05	1;09;04	2;04;25
NZ-galderen hurrenkera:	2;00;26	1;10;12	2;03;12

Jarraitzeko, arestian azertu ditugun hiru haurren datuak orokorrean ikusirik, zenbait proposamen biltzen saiatuko gara gramatika-ezaugarrien eta sintaxi-arauen erabilerari buruz:

1. Gramatika-ezaugarri eta sintaxi-arauen erabileraren inguruan haur bakoitzak bere garabide orokorra gordetzen duela dirudi. Esan gura duguna gauza jakina da: haurrak ez direla adin jakin batean gramatika-ezaugarri eta sintaxi-arau ezberdinak erabiltzen hasi behar. Haur bakoitzak bere garabide berezia dauka, eta hiru haur hauei buruz 2;00;00ko adinaren inguruan hasten dutela baino ezin dezakegu esan. Gure eritzia, lehenago ere esan dugunez, hauxe da: garabide honen hasierak garunaren heltze neurologikoak mugatzen duela (ikus Bickerton 1990), eta une baten, haur bakoitzaren heltze neurologikoaren garapenaren arabera, Gramatika Unibertsala deitzen den hatsarre-multzoaren erabilera nahitaez gertatzen zaiela haurrei. Une honetatik aurrera Gramatika Unibertsalaren hatsarre-multzoa deiturikoa, haurrak entzuten eta ikasten duen hizkuntzaren datuek eraginik, hizkuntza horrek duen gramatikara taiutu edo moldatuko da haurraren garunean.

2. Gramatika-ezaugarri eta sintaxi-arau ezberdinen erabilera ez da batera gertatzen, guk aztertu ahal izan ditugun datuen arabera behinik behin. Ez dagoena hain argi zera da: ea hurrek gramatika- eta sintaxi-arloetako fenomeno ezberdinak erabil ditzaketen hurrenkera ezberdinez, edo aztertu ahal izan dugun korpusak mugaturik ezin izan ditugun gramatika- eta sintaxi-arloetako hainbat fenomeno bere hasieran ikusi. Hau guztiau Mikel haurraren datuak ikusirik diogu, zeren ez baitirudi oso zilegi genitiboak izen-sintagmaren barruan determinazioa baino lehenago erabiltzea; edo gramatika-kasu markak izen-sintagmaren determinazioa baino lehen. Kontutan izan behar dugu beste haur biengan ez dela gauza bera gertatzen, eta agian Mikel haurraren horrela ikustearren arrazoa aztertu ahal izan dugun korpus murritzean baino ez datza.

Edozelan ere, gure eritziz noski, behin hurrek Gramatika Unibertsalaren hatsarre-multzoa erabiltzen hasten direnean eta eurek entzuten eta ikasten diharduten gramatikara egokitzen, garapen jakin bat jarraitu beharko dute. Gramatikaren garapen hau (ikus Meisel 1994) perpausak duen hurrenkera

30. Menderagailuen araketa aditz-aspektuekatz batera burutu dugu 4.5. azpi-atalean.

31. Datu zehatzagoak ikusi ahal izateko 2. taulara jo dezakegu.

hierarkikoaren arabera egongo da eraturik, hortaz hiru urrats edo aro nagusi ikus daitezkeelarik: Aditz-kategoriarena, INFL funtzio-kategoriarena eta KONP funtzio-kategoriarena (ikus Barreña 1993). Hipotesi honen arabera, haurrek erabiltzen hasten diren gramatika-ezaugarri eta sintaxi-arau ezberdinak garabide honek zuzendurik daude, eta oinarritzko berezitasunen garapen bera edo antzerakoa izan beharko dute.

3. Nolanahi dela ere, gramatika- eta sintaxi-arloetako fenomeno ezberdinen erabileran nolabaiteko mailakatzea dagoela aurkitu dugu. Esan gura duguna zera da: batzuk erabil ditzaten beste batzu lehenago erabili behar izan dituztela. Baieztapen hau guztiz argi geratzen da aztertu ditugun aditz-multzoren arloko ezaugarri ezberdinez (ikus 2. taula). Bertan, aditz-aspektu-markek, subjektuarekiko pertsona-komunztadura-markek, zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura-markek, osagarri zuzenarekiko pertsona-komunztadura-markek, denbora-markek eta modu-markek, haur guztiengan agerrera mailakatua dutela baieztatzen digute. Agerrera-hurrenkera haur guztiengan bera ez bada ere, oinarrian bera dela esan dezakegu, arestian esan dugunaren ildotik behintzat.

4. Halere, gramatika-ezaugarri edo sintaxi-arauren bat erabiltzen hasteak, ez du esan gura une horretatik aurrera ezaugarri hori beti eta zuzen erabiliko dutenik. Gramatika- edo sintaxi-arloetako fenomeno baten erabileraren hasieran badirudi haurrek ez dutela berau beti erabiltzen³². Horrela ikus dezakegu argi eta garbi ergatibo-markaren, adizki laguntzaileen edo pertsona-komunztaduraren erabileran. Ezaugarriaren bat erabiltzen hasten direnean, hasiera baten, berau erabiltzeaz gain aurreko aldian erabili izan duten egitura ere baitarabilte. Geroxeago gramatikaren urrats berriak arauturiko egitura berria ezarriko da haurren ekoizpenean, eta berau baino ez dute erabiliko.

Badirudi, beraz, Gramatika Unibertsalaren hatsarre-multzoko ezaugarriak gramatika zehatzera moldatzean haurrek duda-mudako edo saio-aldi bat izan dezaketela, edo nahiago bada, ezaugarri zehatzaren aukeretako baten bermaketa egiteko aldi bat behar dutela.

5. Hau guztionen arabera, beraz, aztertu ditugun gramatika- eta sintaxi-arloetako fenomenoak une batetik aurrera erabiltzen hasten direla esan dezakegu. Lehenago ez darabiltzatela argi geratu dela uste dugu.

Laburbiltzeko asmoaz, aztertu ditugun gramatika-ezaugarrien eta sintaxi-arauren erabileraren hasiera 4. taulan datatuko dugu haurrez haur.

4. TAULA GRAMATIKA-EZAUGARRIEN ETA SINTAXI-ARAUEN ERABILERAREN HASIERAREN DATAKETA

Oitz:	Mikel:	Peru:
2;00;05	1;09;04	2;03;12

32. Beste hizkuntzetako ikerlariak ere horrela ikusi dute. Esaterako, Aldridge-k (1986) haur ingelesaren garapena aztertutik, INFL funtzio-kategoria erabileraren hasieran, aldi baten, INFL-dun zein INFL-bako egiturak aurkitu dituela dio.

Ebbl-neurriei begiratz gero, une honetan Oitz haurrak 1,77 neurria du eta II. mailan dago. Mikel eta Peru hurrek, oster, 1,35 eta 1,36 neurriak dituzte eta I. mailan daude. Alabaina, azken haur bi hauek hurrengo hilean 1,71 eta 2,10 neurriak izango dituzte. Esaldi luzeenei begiratz gero 7, 4 eta 3 baliokoak dira Oitz, Mikel eta Peru hurrengan, hurrengo hilekoak 4, 5 eta 5 baliokoak, hurrenez hurren, diren bitartean.

Ez dugu uste data hauen aurretik gramatika-ezaugarrien eta sintaxi-arauek erabileraz hitzegun dezakegunik. Hala eta guztiz ere, baliteke, Peru eta Oitz haurren ekoizpenak ikusirik, zertxobait aurreratzea delako unea, baina aurrerapen horrek ez luke gure hipotesia gutxietsiko.

5.2. Gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-arauek gabeko aro goiztiarraren izaera

Azpi-atal honetan gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-arauek gabeko aro goiztiarraren izaera deskribatzeari eta hainbat zehaztasun eta berezitasun biltzeari ekingo diogu.

Hasteko, aro honen aldia zein den haur bakoitzarengan aurkeztuko dugu 5. taulan. Alabaina, kontutan izan behar dugu, aro honen hasiera-data bideo-grabaketak hasi ziren uneak mugatzen duela, eta ez dugula aurreko ekoizpenaz ezer esatekorik.

5. TAULA
GRAMATIKA-EZAUGARRIAK ETA SINTAXI-ARAUEK GABEKO ARO
GOIZTIARRAREN IRAUPEN-DATAK

Oitz haurra:	Mikel haurra:	Peru haurra:
1;05;19 - 1;11;05	1;07;14 - 1;07;27	1;11;00 - 2;02;14

Jarraian aro honen hainbat zehaztasun eta berezitasun aurkeztuko dugu.

1. Gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-arauek gabeko aro goiztiar hau ez da holofrase izeneko aldira mugatzen. Jakina da holofrase-aldian hurrek hitz bakarreko ekoizpenak moldatzen dituztela. Aro honetan, aitzitik, hitz bakarreko ekoizpenez gain hitz biko eta anitzekoak ere gauzatzen dituzte. Badirudi, beraz, hitz biko eta anitzeko aldiaren hasieran hurrek oraingoz ez darabiltela gramatika-ezaugarriak ez sintaxi-arauek.

2. Gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-arauek gabeko aro goiztiar honetan, aldiz, semantika-arloko ezagupenak badituztela dirudi.

Badirudi, helduen sailkapena eginez bederen, hurrek, besteak beste, izenak, adjektiboak, aditzak eta aditzondoak darabiltzatela sasoi honetan. Nini-hizkuntzako hitzez gaineko izenak eta adjektiboak, helduen hizkuntzaren arauak eskatzen duen legez, *-a* marka eta guzti darabiltzate. Aditzak *-tu* (edo *-i* eta *-n* baliokideak) markaz ekoizten dituzte, nini-hizkuntzako hitz bereziak ez badira. Aditzondoak ere badarabiltzate, apur batzuk izanik, baina helduen arauak markatzen duen erara.

Halere, gure ustez behinik behin, ezagutza hau hitzez hitz eraiki dute hurrek aldi honetan.

3. Zelan egiten dituzte gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-araurik gabeko aro goiztiar honetako hitz biko eta gehiagoko hitz-elkarketak? Erizpideren batez baliatzen ote dira? Gramatika- eta sintaxi-arloez gaineko beste erizpideren bat edo batzuk ote darabiltzate?

Galdera honi erantzuteko asmoz, aro goiztiar honetako hitz biko eta anitzeko esaldiak edo hitz-elkarketak aztertzeari ekin beharko diogu. Alabaina, ekoizpen hauek aginduetan, galderetan eta deklaratzaileretan bereziko ditugu, alde batetik. Bestetik, hitzen lexiko-kategoriak ere kontutan izan beharko ditugu.

Aditzen bat duten esaldi deklaratzailerak 19 dira Oitz haurraren korpusean, esaldi bakarra Mikel haurraren eta 14 Peru haurraren. Agindu-esaldiak 22 dira Oitz haurraren korpusean eta 1 Peru haurraren. Aditzen batez gauzatutiko galdera-esaldirik ez dute ekoizten, ordea. Aditzen batez buruturiko esaldi hauen hurrenkerari begiratzen badiogu, zera ikus dezakegu: deklaratzaileretan aditza amaieran jartzeko joera derakusaten bitartean ez dela gauza bera aginduzkoetan gertatzen (ikus 6. taula).

6. TAULA

GRAMATIKA-EZAUGARRIRIK ETA SINTAXI-ARAURIK GABEKO ARO GOIZTIARREKO ADITZEN BATEZ BURUTURIKO HITZ BIKO EDO GEHIAGOKO ESALDIEN HURRENKERA ADITZAREN EGONGUNEAREN ARABERA

	Guztira	Ad. hasieran	Ad. amaieran
Esaldi deklar.:			
Oitz:	19	-	19
Mikel:	14	2	12
Peru:	1	-	1
Agindu-esald.:			
Oitz:	22	12	10
Peru:	1	1	1

Parodi-k (1989) haur alemanen aro goiztiar honetako hizkuntza begiraturik, haur bakoitzak aditza hasieran edo amaieran jartzerakoan bere jokabide berezia izan dezakeela ikusi du. Guk aztertu ditugun hiru haurretatik bik baino ez dute esaldirik ekoizten, eta esaldi deklaratzaileretan biek derakusate joera bera: aditza amaieran. Halere, jokabide hau ez da bakarra Peru haurraren ekoizpenean. Agindu-esaldietan, oster, Oitz haurrak (gogoan izan bere korpusa baino ezin dugula aztertu) aditza amaieran zein hasieran jartzen du. Ondorio bi bururatzen zaizkigu. Haurrek lexiko-kategoria ezberdinetako unitateak berezten dituztelako izan daitekeela, horrela aditzari esaldi deklaratzaileretan, nagusiki, egongune berezi bat ematen diotelarik. Bestetik, perpaus-motak ere berezten dituztela, aginduzkoak zein deklaratzailerak. Halere, kontutan izan behar dugu guzti hau baieztatzeko Oitz haurraren datuak baino ez ditugula.

Aditzik ez duten hitz biko edo gehiagoko esaldiak arakatzearan deklaratzailerak eta galderak bereziko ditugu. Aditzik gabeko esaldi deklaratzaileretan, lexiko-kategoria ezberdinetako unitateak edozein ordenatan gauzatzen dituzte-

la ikus dezakegu, deiktikoak nagusiki hasieretan jartzeko joera baderakusate ere. Galdera-esaldietako hitzordena, oster, guztiz azpimarragarria iruditzen zaigu, baina Oitz haurrak baino ez ditu halako 8 ekoizpen burutzen. Halere, zortzietan hurrenkera berbera da: *NZ-hitza* beti esaldiaren amaieran.

Alabaina, bada beste berezitasun azpimarragarririk gramatika-ezaugarririk eta sintaxi-araurik gabeko aro goiztiar honetan. Hainbat ekoizpenetan hurrenkera markatua darabiltela iruditzen zaigu. Esan nahi duguna zera da: haurrek hitzordena darabiltela semantika-pragmatika-arloko mezuak gauzatzeko. Ikus ditzagun ondoko adibideak:

(32) *a(rg)ia. a(rg)ia (b)apez. a(rg)ia (b)apez* (O. 1;05;19) (*grabatzen ari diren gelako argia itzaltzean*); *han tena* (O. 1;07;20) (*erabilgarria edo interesgarria iruditzen zaion jostailua aipatzean*); *hori no(re)na?* (O. 1;08;28) (*adibide honetan mintzagaia osagai deiktikoa da, eta galdegaia galdetzailea, NZ-hitza*); *oihala ez!* (O. 1;10;12) (*egoera honetan haurrak ez du nahi amak oihala jar diezaion*; *oihala, bestalde, mintzagai jakina da, berataz ari baitira ama eta haurra*; *ezeztapenak haurraren gogoa adierazten du*); *o(ra)in hartu* (O. 1;11;05) (*egoera honetan, bere amak 'orain' beste leku batetara kotxea bidaltzea proposatzerakoan, haurrak 'orain' hartzea kontraproposatzen du*); *hau no* (M. 1;07;14) (*mintzaide helduak hartzea proposatzen dion gauzakia ez duela gura azaltzeko*); *hau mumua* (P. 1;11;29) (*oraingo honetan sapaitik zintzilik dau den gauzakiez dihardute haurrak eta mintzaideak*; *mintzaideak uste du haurrak usoaz diharduela, baina haurrak zuzendu egiten dio ustea, mamuaz ari baita*); *ni otate(berriro)* (P. 1;11;29) (*jostailua berriro hartu nahi duela esatean*); *ni punba* (P. 1;11;29) (*bere jostailua jausi egin dela adieraziz -'ni', noski, 'nirea' baita-*); *hemen aita* (P. 1;11;29) (*ipuina ikusten ari dela, aita seinalatzen duenean*).

Adibide hauetan, eta beste batzuetan ere, gure eritziz, haurrek mintzagai-galdegai³³ izenaz ezagutzen dugun hurrenkera darabiltela iruditzen zaigu. Jakina da euskaran honelako hitzordena darabilgula, jakintzat ematen dugun informazioa eta ondoren berritzat edo garrantzitsutzat ematen duguna edo galdetzen duguna adierazteko. Gainera, gure ustetan, gauza bera gerta daiteke Oitz haurrak ekoizten dituen aro goiztiar honetako 8 NZ-galderetan: galdetzailea edo NZ-hitza azkenean jartzea. Ez ote da izango antzeko jokabidea agindu-esaldietan aditza sarritan hasieran jartzera bultzatzen duena Oitz haurra?

Hau guztiau ikusirik, gure ustez, haurrek semantika-pragmatika-arloko mintzagai-galdegai izenaz ezagutzen dugun hurrenkeraren antzeko zerbait badarabilte gramatika-ezaugarririk eta sintaxi-araurik gabeko aro goiztiar honetan. Halere, ez dugu esan gura, hitz-elkarketa guztiak hatsarre honek taiuririk eraikitzen dituztenik.

33. Salaburuk (1991) proposatzen duen terminologia erabiliz, beharbada mintzagai hanpatua esan beharko genuke. Halere, nahiago dugu mintzagai-galdegai terminologia orokorra erabili.

4. Aro goiztiar honetan gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-arauak ez erabiltzeak ez du esan gura hizkuntzaren beste arlo arautuetako ezaugarriak edo hatsarriak ez darabiltenik. Baliteke, adibidez, fonologia-sistemaren ezaugarriak edo hatsarriak dagoeneko erabiltzea, edo hauetariko zenbait bederen.

Gure ustez, aldi honetan, eta agian lehenago, haurrek euskararen, edo ikasten diharduten hizkuntzaren zein hizkuntzen fonologia-sistema(k) erabiltzen hasten dira. Ildo honetatik doa Lleó (1993) hizkuntzalariak buruturiko ikerlana. Lleó-k, gatzelaniadun eta alemaneradun haurren fonologia-sistemaren jabekuntza arakaturik, zera dio laburturik: 1;06ko adina izan aurretik haurrek ikasten diharduten fonologia-sistema bereganatu eta mugatu egiten dutela, aurretiaz darabilten aukera-multzo zabalaren artetik.

5.3. Zenbait proposamen

Laburbildurik, gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-arauak ez darabiltzaten aro goiztiar bat badela haurren hizkuntzaren jabekuntzaren garapenean esan dezakegula uste dugu.

Aro goiztiar honetan haurrek, beharbada, besteak beste, fonologia-sistemaren ezagupena badute, edo badarabilte.

Honez gain, aro goiztiar honetan, lexiko-arloko ezagupenak hitzez hitz metatu dituztela uste dugu.

Baliteke, gainera, pragmatika-arloko mintzagai-galdegai hurrenkera ere erabiltzea. Baina honek ez du esan gura, ekoizten dituzten esaldi guztiak fenomeno honen arabera taiutzen dituztela uste dugunik, esaldietako batzuk horrela eratzen dituztela baino. Parodi-k (1989), esate baterako, osagai biko hainbat ekoizpen predikatu eta beronen argumentutzat jotzen ditu. Eta Meisel (1990) ere ildo beretik abiatzen dela dirudi.

Guzti hauez gain, baliteke aro goiztiar honetan beste zenbait ezagupen izatea eta erabiltzea. Guzti hori arakutzen eta ezagutzen datza gure zeregina.

Bestalde, haurrek gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-arauak erabiltzen hasten diren aroari buruz ohar bi aipatu gura ditugu. Alde batetik, gramatikaren jabekuntza- edo erabilera-garapen honek ez duela loturarik semantika-pragmatika-arloko hatsarreez, hots, gramatikaren jabekuntzaren garabidea beregain dela, independientea. Gure ustez, gramatikaren erabilera haurren garunaren heltze-garapenari zor zaio, eta haurrek entzuten duten hizkuntzak Gramatika Unibertsalaren hatsarre-multzoa gramatika zehatz bihurtzen du. Bestetik, gramatikaren erabilerak garabide zehatza jarraitzen duela, perpau-sak duen hurrenkera hierarkikoarena hain zuzen. Horrela, lehenengo Aditz-kategoria erabiliz hasiko dira haurrak euren gramatika-garabidea jorratzen; ondoren INFL eta KONP funtzio-kategoriek bideratuko diete jabekuntza.

BIBLIOGRAFÍA

ALDRIDGE, M. (1986): A first stage in the acquisition of INFL. *Research Papers in Linguistics* 1, 39-58.

- BARREÑA, A. (1993): *Haur euskaldunen hizkuntzaren jabekuntza-garapena: INFL eta KONP funtzio-kategorien erabileraz*. Gasteiz: Doktorego-tesia.
- (1994a): Sobre la adquisición de la categoría funcional COMP por niños vascos. J. Meisel argitaratzaile: *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Frankfurt/Main: Vervuert-Iberoamericana, 231-284.
- (1994): Aditz-komunztaduraren jabekuntza-garapena haur euskaldun elebakar batengan. *Uztaro* 12, 67-88.
- (agertzeko): Funtzio-kategorien jabekuntza-garapenaz. *ASJU*.
- (agertzeko): Aditz-denboraren erabilera goiztiarra haur euskaldun elebakar batengan. *Zutabe*.
- (1995): Haur euskaldun elebakar baten mendeko perpausen jabekuntza-garapena. *Tantak*, 12, 45-73.
- BICKERTON, D. (1990): *Syntactic development: the brain just does it*. University of Hawai'i at Manoa: eskuizkribua.
- BROWN, R. (1976): *A first language. The early stages*. Penguin.
- CLAHSEN, H. (1986): Verb inflections in German child language: acquisition of agreement markings and the functions they encode. *Linguistic* 24-1 (281), 79-121.
- ELOSEGI, K. (1991): *La adquisición del sistema de casos en euskera*. Eskuizkribua.
- EZEIZABARRENA, M. J. (1991): Ezeztapenerako formen bilakaera bi haur elebidunen eta elebakar baten hizkuntz jabekuntzan. I. Idiazabal zuzendari: *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua, 183-195.
- (1994): La concordancia con el Sujeto en euskera (formas verbales de simple, doble y triple concordancia). J. Meisel argitaratzaile: *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Frankfurt/Main: Vervuert-Iberoamericana, 181-229.
- HERNÁNDEZ PINA, F. (1984): *Teorías psico-sociolingüísticas y su aplicación a la adquisición del español como lengua materna*. Madrid: Siglo XXI.
- HYAMS, N. (1986): *Language acquisition and the theory of parameters*. Dordrecht: D. Reidel Publishing Company.
- (1989): The Null Subject Parameter in Language Acquisition. Jaeggli eta Safir argitaratzaile: *The Null Subject Parameter*. Dordrecht: Kluwer Academic Publishers, 215-238.
- IDIAZABAL, I. (1984): *Euskararen jabekuntza: egitura iragangaitzen ulermena*. Ginebra: Doktorego-tesia.
- (1991a): Haur txikien hizkuntz heldutasuna neurtzeko baliapide bat: esaldien batz besteko luzera (EBBL) edo 'MLU'. J. A. Lakarra argitaratzaile: *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*. Gipuzkoako Foru Aldundia - ASJU Gehigarria, 1289-1295.
- (1991b): Izen Sintagmaren Determinante-artikulua eta bere jabekuntza. Lehenengo emaitzak euskaraz eta erdaraz. I. Idiazabal zuzendari: *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua, 169-181.
- (1991c): *Evolución de la determinación nominal en un niño bilingüe vasco-hispanófono*. University of Southern California-k eratutako "XIIth Conference on Spanish in the U.S. and Ist. International Conference on Spanish in Contact with other Languages" biltzarrean aurkeztutako txostena.
- (1994): Elementos de cohesión y de conexión en las primeras fases de la adquisición del lenguaje. J. Meisel argitaratzaile: *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Frankfurt/Main: Vervuert-Iberoamericana, 35-68.
- IDIAZABAL, I. eta BRONCART, P. (1986): Las estrategias de comprensión de los enunciados transitivos en vasco. Siguán koordinatzaile: *Estudios de psicolingüística*. Madrid: Pirámide, 165-194.
- LLEO, C. (1993): *On Phonological Parameters in First Language Acquisition*. Hanburgeko Unibertsitateko Romanisches Seminar Sailak eta Research Center for Multilingualism and Language Contact erakundeak antolatutako Grammatical Aspects of Biling-

gualism izeneko Nazioarteko Elebitasunari Buruzko II. Simposiumean aurkezturiko ikerlana.

- MEISEL, J. (1986): Word order and case marking in early child language. Evidence from simultaneous acquisition of two first language: French and German. *Linguistics* 24, 23-183.
- (1990): INFL-ecion: Subjects and Subject-Verb Agreement in Early Child Language. Evidence from Simultaneous Adquisition of two First Languages: German and French. J. Meisel argitaratzaile: *Two First Languages, Early Grammatical Development in Bilingual Children*. Dordrecht: Foris.
- (1994): Getting fat. Finiteness, Agreement and Tense in Early Grammars. J. Meisel argitaratzaile: *Bilingual First Language Acquisition: French and German Grammatical Development*. Amsterdam: John Benjamins.
- OUHALLA, J. (1992): *Functional Categories, Agrammatism and Language Acquisition*. Universidad de Frankfurt: eskuizkribua.
- PARODI, T. (1989): The acquisition of word order regularities and case morphology. J. Meisel argitaratzaile: *Two First Languages: Early Grammatical Development in Bilingual Children*. Dordrecht: Foris.
- PLATZACK, C. (1989): A Grammar without Functional Categories: A Syntactic Study of Early Swedish Child Language. *Nordic Journal of Linguistics* 13, 107-126.
- RADFORD, A. (1986): Small children's small clauses. *Research Papers in Linguistics* 1, 1-38.
- (1989): *Syntactic Theory and the acquisition of English syntax: the nature of early child grammars of English*. University of Essex: eskuizkribua.
- ROEPER, T. (1988): Grammatical principles of first language acquisition: theory and evidence. Newmeyer argitaratzaile: *The Cambridge Survey* (2. tomoa), 35-52.
- SALABURU, P. (1991): Euskal perpausa: zenbait ohar sintaxi eta mintzagai egiturez. J. A. Larkarra argitaratzaile: *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*. Donostia: ASJU-Gehigarriak 14, 927-946.

LABURPENA

Euskararen jabekuntza-garapenean, haur euskaldunek hitz biko zein gehiagoko esaldiak eraikitzen hasten direnean, gramatika-ezaugarriarik eta sintaxiaraurik gabeko aldia ezagutzen dute aho-ekoizpenean. Hizkuntza-ekoizpen hau, besteak beste, hatsarre semantiko-pragmatikoek bideraturik dagoen aldi aurre-sintaktiko honen ostean, hurrek urte bi dituzten inguruan, sintaxiaren garapen mailakatua gauzatzen dute. Garapen sintaktiko hau antzekoa da haur guztiengan eta, gure ustez, ez dago hatsarre semantiko-pragmatikoetan oinarriturik, beregain gertatzen baita.

Ikerlan honetan hiru haur euskaldunen ekoizpena aztertzen da. Hauetariko bi gaztelania-euskara elebidunak dira eta hirugarrena elebakarra. Guztiak, 1;06ko adina izan dutenetik 5;00ko adina izan duten arte bidegrabatuak izan dira hamabostero 30 minutuko saioetan. Arakaturiko jabekuntza-garapenak honako hauek izan dira: izen-sintagmaren determinazioa, izen-sintagmaren osagaien gauzatzea eta hurrenkera, gramatika-kasuen erabilera, aditz aspektuen erabilera, aditz-komunztaduraren eraiketa, eta abar.

RESUMEN

En el proceso de adquisición del euskera, cuando los niños vascos comienzan a construir enunciados de dos o más palabras, conocen un primer período en

el que carecen de conocimientos gramaticales o sintácticos al construir sus producciones lingüísticas. Tras este período presintáctico en el que la producción lingüística es construida basándose, entre otros, en principios semántico-pragmáticos, los niños vascos, hacia la edad de 2;00, conocen un desarrollo sintáctico gradual y de algún modo calificable como uniforme, que no surge a través de los citados principios semántico-pragmáticos, sino más bien independiente de ellos.

El presente trabajo analiza la producción lingüística de tres niños vascos, dos bilingües vasco-castellanos y un monolingüe, que fueron videograbados mensualmente desde 1;06 hasta 3;00 de edad, durando las sesiones unos 30 minutos. En el se analizan la adquisición de la determinación del sintagma nominal, la adquisición de los diversos componentes y el orden del sintagma nominal, la utilización de los casos gramaticales, la utilización de los aspectos verbales, la adquisición de la concordancia verbal, etc.

RÉSUMÉ

Dans le processus d'acquisition de l'euskera, lorsque les enfants basques commencent à construire des énoncés de deux ou trois mots, ils traversent une première période où ils manquent totalement de connaissances grammaticales ou de syntaxe, lors de la construction de leurs productions linguistiques. Après cette période pré-syntaxique, au cours de laquelle la production linguistique est construite sur la base, entre autres, des principes sémantiques-pragmatiques, les enfants basques, vers l'âge de 2 ans connaissent un développement syntaxique graduel, et d'une certaine manière, pouvant être qualifié d'uniforme, qui ne surgit pas des principes sémantiques-pragmatiques cités, mais plutôt indépendants à eux.

La présente analyse étudie la production linguistique de trois enfants basques, deux d'entre eux bilingues basque-espagnols et un monolingue, qui furent filmés de forme mensuelle depuis l'âge d'un an et demi jusqu'à trois ans, au cours de sessions de 30 minutes. Dans ce travail sont analysées l'acquisition de la détermination du syntagme nominal, l'acquisition des différents composants et l'ordre du syntagme nominal, l'utilisation des cas grammaticaux, l'utilisations des aspects verbaux, l'acquisition de la concordance verbale, etc.

SUMMARY

In the process of learning the Basque language, when Basque children begin to pronounce two or more words together, they are in the first stage of acquisition, in which they lack grammatical or syntactic knowledge for the construction of their linguistic output. Following this presyntactic period in which linguistic output is constructed based on semantic-pragmatic principles amongst others, the syntactic development of Basque children around the age of two years is gradual and, to some extent, qualifiable as uniform, and does not emerge through the aforementioned semantic-pragmatic principles, rather independently.

This work analyses the linguistic output of three Basque children, two of them bilingual in Basque and Spanish, and one monolingual, who were recorded on video, on a monthly basis, from the age of one and a half to three years of age, in sessions of 30 minutes each. From the recordings, their acquisition of the determination of nominal phrases, the acquisition of the different components and the order of the nominal phrase, the use of grammatical cases, the use of verbal aspects, the acquisition of verbal sequences, etc., were all analysed.

